



Irakasle hori,

Hizkuntza Proiektua. Zergatik eta zertarako? Galdera bi horiek darabilzkigu buruan proiektu horren izena entzuten dugunean. Zertarako behar dugu? Eskola bere osotasunean hartuta, hizkuntzen presentziaren inguruan eta haien erabileraren eta didaktikaren inguruan denok elkarrekin gogoeta egin eta erabakiak hartzeko. Zergatik da beharrezkoa? Ikastetxeak, bere errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuta (ingurua, ikasleak, hezkuntza komunitatea...) hizkuntzen inguruan hartutako erabakiak berrikusteko eta hartu behar dituenak pentsatzeko... Hau da, eskolako hizkuntzak birpentsatzeko. Hortik dator Jardunaldiaren izenburua: **Hizkuntza proiektua: eskolako hizkuntzak birpentsatzen**. Izan ere, izenburua horren atzean galdera asko ezkututzen dira: zer pisu du didaktika eta metodologiak hizkuntzei dagokienean ikastetxean? Zelako kezka edo zalantza argitu behar ditugu? Edo...zer hartu behar dugu kontuan gure hizkuntzetan nahiz atzerriko hizkuntza batean edukiak lantzen ditugunean? ...

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren apustua da, euskara ardatz hartuta, hezkuntza eleanitza garatzea gure ikastetxeetan, baina horrek guztiak zer nolako erabakiak hartzera behartzen gaitu?



Jardunaldi honek galdera horiei erantzuna eman nahi die eta zenbait ikastetxek topatu dituzten erantzunak erakutsi. Goizeko saioetan, hizkuntza proiektua garatzeko alderdi praktikoak, didaktiko-metodologikoak, eta eleaniztasunari lotutako ikerketen emaitzak izango ditugu entzungai. Arratsaldeko saioetan, berriz, ikastetxeen praktika onak entzungo ditugu. Abiapuntu izan daitezke gure ikastetxean ere hizkuntzak eta hizkuntzetan egiten duguna birpentsatzen hasteko eta, hartara, Hizkuntza Proiektua garatzeko.

Erantsita duzue Jardunaldiari buruzko informazioa eta izena emateko linka <http://nagusia.berritzeguneak.net/eu/inscripcion.php?codigo=1470BGNC69>

Adeitasunez

Begoña Garamendi Ibarra
HEZKUNTZA BERRIZATZEKO ZUZENDARIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA